



## II. ATALA BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO TOKI ADMINISTRAZIOA

### Basauriko Udala

**Deialdia eta oinarriak, plaza bat (1) txanda irekian oposizio bidez betetzeko; plazaren ezaugarriak: Administrazio Bereziko eskala, azpieskala Teknikoa, Goi-Teknikari klasea, A1 Taldea, Ingenieritza eta Zerbitzuen atalburua.**

Alkate jaunak, 2369/2024 Dekretua eman du, ekainaren 10ekoa (akatsen zuzenketa Alkatetza 2541/2024 Dekretuaren bidez egin da, ekainaren 21ekoa). Bertan, honako hau xedatu du:

Ikusi da abenduaren 20ko 4311/2022 Dekretuaren bidez xedatutakoa. Dekretu horren bidez, Basauriko Udalaren 2022ko ekitaldirako lan-eskaintza onartzen da, dagozkion hautaketa-prozesuen bidez bete beharko diren plazak jasotzen dituen (hemen argitaratu zen osorik: 2022ko abenduaren 30eko Bizkaiko Aldizkari Ofizialean, 248. zenbakia). Dekretu horren bidez, besteak beste, honako lanpostu hau onartu zen: txanda irekian, Administrazio Bereziko eskalako, azpieskala Teknikoko, Goi-Teknikari Klaseko, A1 taldeko Ingenieritza eta Zerbitzuen Atalburuaren plaza bat (1).

Horrez gain, Basauriko Udaleko karrerako funtzionarioa izateko hautapen-prozesuak arautuko dituzten Oinarri Orokorrak onetsi zituen ekainaren 1eko 2311/2022 Dekretuak, zeina urte bereko uztailaren 26ko Bizkaiko Aldizkari Ofizialean (110. zenbakia) argitaratu zen.

Horrekin batera, baina, eskala, azpieskala eta klase bakoitzeko hautapen-prozesu bakoitzerako oinarri espezifikoak argitaratu behar dira, deialdi bakoitzaren berezko ezaugarriak zehaztuta.

Aurrekontuak Betearazteko Udal Arauan xedatutakoaren arabera, jakinarazten da deialdi honen xede den plazak ez dakarrela I. kapituluko gastua handitzea, une honetan bitarteko funtzionarioek betetzen dutelako plaza hori eta 2024ko ekitaldiaren hasieran onartutako gastuaren baimenean eta xedapenean sartuta daudelako.

Horrela, bada, adierazitako guztia aintzat hartuta, eta Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen 7/1985 Legearen 21.1.g) artikulua esleitutako eskumenetan oinarrituta, alkateak honako hau

#### XEDATZEN DU:

*Lehenengoa:* Oinarri hauen xede diren hautapen-probetarako deialdia egitea.

*Bigarrena:* Administrazio Bereziko eskalako, azpieskala Teknikoko, Goi-Teknikari klaseko, A1 taldeko, Ingenieritza eta Zerbitzuen Atalburua, derrigorrezko 3. hizkuntza-eskakizuneko plaza bat (1) txanda irekian oposizio bidez betetzeko hautaketa-prozesua arautuko duten oinarri espezifikoak onestea.

*Hirugarrena:* Oinarri espezifiko horiek Bizkaiko Aldizkari Ofizialean eta deialdiaren laburpena BOEn argitaratzeko agindua ematea.

*Laugarrena:* Dekretu honen aurka administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkeztu ahal izango da Bilboko Administrazioarekiko Auzietako Epaitegian, berau argitaratzen den dataren bihamunetik bi hilabeteko epean. Bestela, nahi izanez gero, berraztertzeko errekurtsoa aurkeztu ahal izango da, hilabeteko epean, ebazpena eman duen organoan. Hala xedatzen du Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legearen 46.1 artikulua, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 123. artikuluaekin bat.

Basaurin, 2024ko ekainaren 24an. — Alkatea, Asier Irigorri Basaguren



**OINARRI ESPEZIFIKOAK: PLAZA BAT (1) TXANDA IREKIAN OPOSIZIO BIDEZ  
BETETZEKO; PLAZAREN EZAUGARRIAK: ADMINISTRAZIO BEREZIKO ESKALA,  
AZPIESKALA TEKNIKOA, GOI-TEKNIKARI KLASEA, A1 TALDEA,  
INGENIERITZA ETA ZERBITZUEN ATALBURUA**

**1. Deitutako plazak**

Administrazio Bereziko eskalako, azpieskala Teknikoko, Goi-Teknikari klaseko, A1 taldeko, Ingenieritza eta Zerbitzuen Atalburua, derrigorrezko 3. hizkuntza-eskakizuneko plaza bat (1) txanda irekian oposizio bidez betetzeko hautaketa-prozesua.

Deitutako plaza 2022ko LEPeri dagokio.

*Funtzioak*

- Urtero saileko plana egitea, plana garatzeko beharrezkoak diren ekintzak, helburuak, baliabideak (ekonomikoak, giza baliabideak eta teknikoak) eta adierazleak identifikatuta.
- Bere saileko baliabideak planifikatu, kontrolatu eta ebaluatzea.
- Sailak egoki funtzionatzeko behar diren ekintza zuzentzaileak eta baliabideak identifikatzea (helburuak berriz ebaluatzea).
- Bere sinadurarekin edo oniritziarekin baimentzea sailean sortzen diren txostenak, kudeaketa-egintzak, ofizioak, baimenak eta komunikazioak, edo bere sinadura behar duen edozein dokumentu.
- Saileko zerbitzu-kartak egitea eta mantentzea.
- Saileko prozesuen edo espedienteen normalizazioa definitzea, kontrolatzea eta ebaluatzea.
- Sailaren ezarpen-prozesuak eta kalitate-kontrola kudeatzea.
- Bere ardurapeko langileen lana eta errendimendua zuzendu, koordinatu, ebaluatu eta gainbegiratzea, helburuak eta errendimendua zenbateraino bete diren egiaztatuz, hala badagokio, ez betetzearen arrazoiak aztertuz eta beharreko neurri zuzentzaileak hartuz.
- Arloburuek oro har Udalari agintzen dizkieten proiektuetan eta batzordeetan parte hartzea.
- Sailaren gai ekonomiko-finantzarioak diseinatu, planifikatu, kudeatu, ebaluatu eta kontrolatzea.
- Sailaren programa eta jarduketan proiektuak zuzentzea, koordinatzea, kontrolatzea eta ebaluatzea.
- Sailaren urteko memoria prestatzea.
- Sailaren prestakuntza-proposamena egitea.
- Hirugarrenekin komunikatzeko bideak ezartzea eta mantentzea, eta zergadunei eta/edo herritarrei arreta ematea, eta komunikabideen kasuan, Korporazioak emandako jarraibideen arabera.
- Administrazio Orokorreko teknikarien kasuan, errekurtsioak eta erreklamazioak ebaztea.
- Korporazioak izendatzen dituen batzorde informatiboetan idazkari-lanak egitea.
- Obretako udal-brigada kudeatzea, brigadako buruarekin lankidetzan.
- Udal-azpiegitura eta -zerbitzuetako obra-proiektuak idatzi eta/edo informatzea, zuzentzea eta jasotzea.
- Industria-lurzoruan jarduerak ezartzeko aholkuak ematea.
- Udal-azpiegituretan eta -zerbitzuetan eragina duten proiektuak idazten eta obrak egiten laguntzea.
- Sustapen pribatuko urbanizazio-proiektuak gainbegiratzea.



- Plan, proiektu eta jardueren ingurumen-alderdiei buruz aholkularitza eta informazio teknikoa ematea.
- Plangintza egiten laguntzea.
- Udalaz gaindiko beste administrazio eta erakunde batzuek planteatutako jardueren komenigarritasunari buruz txostenak egitea eta aztertzea.
- Azpiegitura-zerbitzuen erakunde pribatuekin edo enpresekin kudeatzea.

## 2. Baldintzak

Alkatetzaren uztailaren 1eko 2311/2022 Dekretu bidez onetsitako oinarri orokorretan ezarritako baldintzak betetzeaz gain:

- a) Goi-Mailako Ingeniari edo baliokidea izatea, edo emateko eskubideak ordaindu izana. Ekainaren 10eko EDU/520/2011 Aginduaren bidez aldatutako Hezkuntzari buruzko maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoen araututako Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako eta Batxilergoko graduatu-tituluekiko baliokidetasunak ezartzen dituen ekainaren 10eko EDU/1603/2009 Aginduan xedatutakoa beteko da. Atzerian lortutako titulazioak dituzten izangaiek egiaztatu beharko dute dagokien baliozkotzea edo, hala badagokio, tituluaren homologazioa egiaztatzen duen kredentziala dutela.
- b) Azterketa-eskibideengatiko tsas ordaindu izana. A1 azpitalderako tasaren zenbatekoa 23,00 eurokoa da.
- c) Euskarazko 3. Hizkuntza-eskakizuna egiaztatzen duen ziurtagiria izatea, edo, hala badagokio, 8.3 oinarrian ezarritakoaren arabera lortzea.

## 3. Eskabideak aurkeztea

### 3.1. Epea

Hautapen-prozesuan onartuak izateko eskabide normalizatuak hoge (20) egun baliouduneko epean aurkeztu behar dira, deialdiaren laburpena Estatuko Aldizkari Ofizialean argitaratzen den dataren biharamunetik zenbatzen hasita.

### 3.2. Eskabidearen baldintzak

Hautaketa-prozesuan parte hartu nahi dutenek Internet bidez egin beharko dute eskabidea eta, horretarako, Basauriko Udalaren egoitza elektronikoan (<https://www.sede-electronica.basauri.eus>) eskuragarri dagoen eskabidea bete beharko dute.

Baliabide propiorik izan ezean, Udalak aurrez aurreko arretarako gune bat jarriko du Udalaren Herritarren Arretarako Zerbitzuan, izapideak egiteko beharrezkoak diren baliabide informatikoak eskaintzeko.

Izangaiek eskabidearen atal guztiak bete beharko dituzte. Eskatutako baldintza guzti-guztiak betetzen dituztela adierazi beharko dute, 2. oinarrian ezarritakoaren arabera.

Horretarako, izangaiek honako hauek jaso beharko dituzte instantzietan, dagozkien ataletan:

- Datu pertsonalak.
- Oposizio faseko hautaprobak zein hizkuntza ofizialetan egin nahi dituzten: euskaraz ala gaztelaniaz.
- Deialdian parte hartu ahal izateko baldintza gisa eskatzen diren eta aurkezten diren ikasketa-titulu ofizialak.
- Egiaztatutako hizkuntza-eskakizuna, baldin badaukate. Bestela, hizkuntza-eskakizuna egiaztatu ahal izango dute 8.3 oinarrian hirugarren ariketarako ezarritako moduan eta epean.

Hautapen-prozesuari buruzko argibideak edo informazioa behar izanez gero, posta elektronikoz eskatu beharko dira, eskabide-inprimakiarekin batera adieraziko den helbidean.



## 4. Dokumentuak aurkeztea

### 4.1. Parte hartzeko baldintzak betetzen direla egiaztatzeko agiriak

2. oinarrian adierazitako parte hartzeko baldintzak egiaztatzeko dokumentazioa hautaketa-prozesua gainditu duten pertsonen behin betiko zerrenda argitaratu ondoren aurkeztuko da, 8. oinarrian aurreikusitakoaren arabera.

Oinarri hauetan ezarritako epearen barruan, eskatutako dokumentazioa aurkezten ez dutenek edo dokumentazioa aztertuta 2. oinarrian adierazitako baldintzaren bat betetzen ez dutela ondorioztatzen bada, praktiketako edo karrerako funtzionario izendatzeko eskubide guztiak galduko dituzte, hasierako eskabidean gezurrezko datuak emateagatik izan ditzaketen erantzukizunak alde batera utzi gabe.

Ez da beharrezkoa izango Basauriko Udaleko langileen espedientean dauden dokumentuak aurkeztea; kasu horretan, nahikoa izango da epe barruan alegatzea.

### 4.2. Dokumentuak itzultzea eta konpultsatzea

Espainiako nazionalitatea ez dutenek dokumentazio guztia aurkeztu beharko dute, euskarara edo gaztelaniara egindako itzulpen ofizialarekin batera. Itzulpena zinpeko itzultzaileak egina behar du, edo dagokion kontsulatu edo bulego diplomatikoak baliozkotua.

Deialdian parte hartzeko baldintzak betetzen direla egiaztatzeko, jatorrizkoak edo kopia konpultsatuak aurkeztu behar dira, 4.1 oinarrian ezarritakoaren arabera beharrezkoa ez denean izan ezik.

## 5. Izangaiak onartzea

Eskabideak aurkezteko epea amaituta, onartuen eta baztertuen zerrenda onetsiko da alkatearen dekretu bitartez. Bazter utzitakoen kasuan, horretarako arrazoiak adierazi beharko dira; eta eskabidean akatsak edo hutsuneak zuzendu behar dituztenen kasuak ere zehaztuko dira. Aipatutako ebazpena Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratuko da.

10 egun baliouduneko epea egongo da onartutakoen behin-behineko zerrendaren akatsak edo hutsuneak zuzentzeko, aurreko ebazpena Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratzen den dataren biharamunetik zenbatzen hasita. Gero, alkateak beste ebazpen bat emango du, onartuen eta baztertuen behin betiko zerrendarekin. Ebazpen hori ere Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratuko da.

Erreklamaziorik aurkezten ez bada, behin-behineko zerrenda behin betiko bihurtuko da, besterik gabe.

Hautagai bat hautaketa-prozesuan onartzeak ez dio Administrazioari eragotziko izangaiak baztertea, horiek onartzeko eskatzen diren baldintzak betetzen ez dituztela egiaztatzen bada. Kasu horretan, Epaimahaiak, interesdunari entzun ondoren, bidezkoa bada, Alkatezari ebazpen-proposamena igorriko dio, dagokiona prozesutik kanpo utziz.

Onartuen eta baztertuen behin betiko zerrenda onesten duen dekretuan baztertu gisa agertzen diren izangaiek errekursoak aurkezten badituzte, eta, hautaprobak egiteko datan, errekurso horiek oraindik ebatzi gabe badaude, izangai horiek hautaprobak egin ahal izango dituzte, nahiz eta, gero, aipatutako errekursoak ezesten badira, ez duten baliorik izango.

## 6. Epaimahai kalifikatzailea

6.1. Alkatearen dekretu bidez jakinaraziko dira, batetik, hautaketa-epaimahaiaren osaera, eta, bestetik, lehenengo ariketa egiteko tokia, data eta ordua.

6.2. Epaimahaiaren osaerak bat egingo du Enplegatu Publikoaren Oinarriko Estatutuaren Legearen testu bateginaren 60. artikuluaekin (urriaren 30eko 5/2015 Legegintzako Errege Dekretuak onetsi zuen aipatutako testu bategina). Epaimahaiburuak, idazkariak eta lau epaimahaikidek osatuko dute Epaimahai Kalifikatzailea, eta kide guztiek eduki beharko dute deialdian parte hartzeko eskatutako titulu akademikoaren maila bereko edo goragoko titulazioa. Bestalde, Epaimahaiko kide guztiek hitz egiteko eta botoa emateko eskubidea izango dute. Idazkariak, aldiz, hitz egin bai, baina ezin izango du



botorik eman. Epaimahaia osatu beharko da kideen inpartzialtasun eta profesionaltasun printzipioetatik abiatuta. Gainera, osaera parekidearen alde egingo da, Emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistarik gabe bizitzeko Legearen testu bategina onartzen duen martxoaren 16ko 1/2023 Legegintzako Dekretuaren 21. artikuluan xedatutakoari jarraikiz.

Epaimahaikideetako bat izendatuko da Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundearen proposamenari jarraituta.

6.3. Epaimahaiak aholkulariak deitu ahal izango ditu. Aholkulari horiek beren espezialitate teknikoetara mugatuko dira, hautapen-prozesuaren proba batzuetan edo guztietan. Halaxe aurreikusten du Euskal Enplegu Publikoaren abenduaren 1eko 11/2022 Legearen 81.9 artikulua.

6.4. Epaimahaiko kideek ezin izango dute parte hartu, baldin eta Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen 23. artikuluan aurreikusitako inguruabarren bat gauzatzen bada; eta, kasua hori bada, horren berri eman beharko diote alkate udalburuari. Era berean, Lege beraren 24. artikulua arabera, izangaiek epaimahaikideak errekusatatu ahal izango dituzte, aurreko artikuluko arrazoiren bat tarte-ko denean.

6.5. Oinarri hauetan aurreikusi gabeko kontuetarako, Epaimahaiaren jarduteko prozedurak bat egingo du alkatearen uztailaren 1eko 2311/2022 Dekretu bidez onetsitako oinarri orokorrekin, eta Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen 15-19 artikuluetan ezarritakoarekin.

## 7. Deialdiak eta jakinarazpenak

Alkatearen eta Epaimahaiaren erabakiak deialdiari, emaitzei eta notei buruz, bai eta beste jakinarazpen eta ebazpen batzuk ere, Interneten argitaratuko dira, lehen adierazitako Basauriko Udalaren helbide elektronikoan. Horrek ez du eragotziko egoki irizitako beste publizitate-bide batzuk ere baliatzea.

## 8. Hautapen-prozesua

### 8.1. *Lehen ariketa (nahitaezkoa eta baztertzaila)*

Ariketa honetan gehienez ere hamar (10) puntu lor daitezke, eta derrigorrezko proba bat izango da.

Epaimahaiak ezartzen duen gehieneko epean idatziz erantzun beharko zaio oinarri hauei dagokien gai-zerrendako zati orokor eta espezifikoen edukiei (I. eranskina) buruzko galdera sorta bati, lau erantzun aukeran izanik.

Zuzeneko puntuazioa formula honen emaitza izango da:  $asmatutakoen\ kopurua\ ken\ errore\ kopuruaren\ herena\ (P = A - E/3)$ . Ondorio horietarako, erantzun gabeko galderak ez dira akastzat hartuko.

Ariketaren azken puntuazioa 0tik 10era bitarte izango da, eta hamartarren bi zifra onartuko dira. 5 puntu edo gehiago lortzen ez dituzten hautagaiak kanporatuta geratuko dira.

### 8.2. *Bigarren ariketa (nahitaezkoa eta baztertzaila)*

Epaimahaiak planteatzen dituen kasu praktiko eta/edo teoriko-praktiko bat edo gehiago, erantsitako gai-zerrendako gai espezifikoei buruzkoak, epaimahaiak zehazten duen gehieneko epean egin beharko dira.

Ariketa hau egiteko, ariketaren izaera eta edukia kontuan hartuta, Epaimahaiak zehazten dituen kodeak eta antzekoak edo bestelako material teknikoak soilik erabili ahal izango dituzte izangaiek.

Bigarren ariketa zero (0) puntutik hogeit (20) puntura bitarte kalifikatuko da, eta hamar (10) puntura iristen ez direnak kanporatuta geratuko dira.

Ariketa hau kalifikatzeko, kontuan hartuko dira erantzunen zehaztasuna, laburtzeko eta aztertzeko gaitasuna eta garatutako ideien aberastasuna, bai eta ideia horien azalpenaren argitasuna eta zuzentasuna ere.

**8.3. Hirugarren ariketa. (derrigorrezkoa eta baztertzailea). Hizkuntza-eskakizuna egiaztatze proba**

Ariketaren helburua euskarako 3. hizkuntza-eskakizuna lortzea da. Ariketa gai edo ez gai gisa kalifikatuko da, eta gainditzen ez bada, hautaketa-prozesutik kanpo geratuko da.

Ez dute euskara-proba egin beharrik berau hasi aurretik Epaimahaiari egiaztatzen diotenen honako egoeretakoa batean daudela:

1. 3. hizkuntza-eskakizuna edo goragoko bat, edo horien baliokidea den titulu edo egiaztagiria badaukatela, euskararen jakite-maila egiaztatzen duten tituluak eta ziurtagiriak baliokidetu, eta Hizkuntzen Europako Erreferentzi Marko Bateratuko mailekin parekatzeko den azaroaren 9ko 297/2010 Dekretuaren arabera.
2. Proba egitetik salbuetsita daudela, euskaraz egindako ikasketa ofizialak aintzat hartzeko eta euskara-maila hizkuntza-tituluen eta ziurtagiriaren bidez egiaztatzeetik salbuesteko den apirilaren 3ko 47/2012 Dekretuaren arabera.

Hizkuntza-eskakizuna honelaxe egiaztatuko da:

- a) IVAPek, HABEK, Osakidetzak edo Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza Sailak emandako ziurtagiri edo tituluak dituztenek baimena eman ahal izango diote Basauriko Udalari, hautapen-prozesuan parte hartzeko egiten duten eskabidean bertan, ziurtagiri edo titulu horiek dituztela egiaztatzeko.

Aurreko paragrafoan aipatutakoak ez diren beste euskara-ziurtagiri edo -tituluak dituztenek, Udalari egiaztatzeko baimenik ematen ez diotenen edo tituluak gero lortzen dituztenek dagokion titulu edo egiaztagiraren kopia aurkeztu beharko dute, euskara-probak egiteko data baino lehen.

- b) 47/2012 Dekretuaren arabera hizkuntza-eskakizuneko azterketa egitetik salbue-tsita daudenek —ikasketak, osorik edo zati batean, euskaraz egin izanagatik— hala adierazi beharko dute eskabidean, eta, euskara-proba egiteko data baino lehen, ikasketak amaitu dituzten zentro edo unibertsitateak emandako ziurtagiriaren kopia aurkeztu beharko dute.

**9. Prozesuaren emaitza eta dokumentuen aurkezpena**

Hautaketa-prozesuaren azken kalifikazioa ariketetan lortutako puntuazio guztien batura izango da (betiere gainditu badira). Berdinketa gertatuz gero, oposizio-faseko bigarren ariketan puntuaziorik handiena lortu duenaren alde egingo da.

Behin hautaketa-prozesua amaituta, Epaimahaiak Udalaren helbide elektronikoan (7. oinarria) argitaratuko ditu gainditu dutenen behin-behineko kalifikazioak, guztira lortutako puntuazio handienetik txikienerako hurrenkeran, eta berariaz adierazita plaza betetzeko hautatutakoak nortzuk diren. Hautatutakoen kopurua ezingo da izan deitutako plazena baino handiagoa.

Gainditu dutenen behin-behineko zerrenda argitaratzen den dataren biharamunetik aurrera, interesdunek hamar (10) egun balioduneko epea izango dute bidezko jotzen dituzten erreklamazioak egiteko.

Erreklamaziorik aurkeztuz gero, Epaimahaiak horiek ebatzi beharko ditu eta, horren ondoren, hautapen-prozesua gainditu dutenen behin betiko zerrenda argitaratuko du.

Horren ostean, Epaimahaiak praktiketako funtzionario izendatzeko proposatzen dituen izangaien zerrenda argitaratuko du, eta 15 egun balioduneko epea zabalduko du, izangai horiek dokumentu konpultsatu bidez egiazta dezaten parte hartzeko 2. oinarrian jasotako baldintzak betetzen dituztela. Era berean, izangaiek honako agiri hauek entregatu beharko dituzte:

- a) NANaren fotokopia konpultsatua.
- b) Atzerriko izangaiek jakinarazpen bat jasoko dute Basauriko Udaletik, eta bertan adieraziko diete beren egoera kontuan hartuta zein agiri zehatz aurkeztu beharko duten, derrigorrez.
- c) Zinpeko aitortpena, adieraziz norbera ez dagoela ez funtzio publikoetan jarduteko gaitasungabetua, ez edozein herri administrazioetako zerbitzutik diziplina-espe-



diente bidez baztertua, ez eta abenduaren 26ko 53/1984 Legean herri administrazioetako langileentzat aurreikusitako ezintasunerako eta bateraezintasunerako lege-arrazoietan sartuta ere.

- d) Espainiako nazionalitatearik ez duten izangaiek zinpeko aitortpena aurkeztu beharko dute, adieraziz ez daukatela beren estatuan funtzio publikora sartzea galarazten dien diziplina-zigorrik edo zigor penalik.
- e) Era berean, hautatutakoek egiaztatu beharko dute ez daukatela oinarri hauen arabera dagozkien eginkizunak betetzea galarazten dien gaixotasunik edo akats fisiko edo psikikorik. Horretarako, dagozkien probak eta osasun-azterketak egin beharko dituzte, Basauriko Udalak dituen lan-osasun zerbitzuetan. Lanpostua betetzeko gaitasun funtzionala egiaztatzen duten probak eta mediku-azterketak egiteko deialdia modu pertsonalizatuan egingo da.

Adierazitako epe barruan, eta ezinbesteko arrazoiak gertatzen direnean salbu, proposatutako izangaiek ez badute dokumentazioa aurkezten, edo ez badute egiaztatzen eskatutako baldintza guztiak betetzen dituztela, ezin izango dira funtzionario izendatu, eta beren jarduketa guztiak baliogabetu egingo dira; eta horrek, gainera, ez du eragotziko eskabidea faltsutzeagatiko erantzukizuna leporatu ahal izatea. Kasua hori denean, izangaia hautapen-prozesuko emaitzan izandako puntuazioaren hurrenkeraren arabera ordeztuko dira, ordeztukoak, aurretiaz, lehen aipatutako agiriak aurkeztu eta gero.

#### **10. Praktikaldia eta prestakuntza**

Sei hilabeteko praktika- eta prestakuntza-aldia egingo da, Alkatearen uztailaren 1eko 2377/2022 Dekretuaren bidez onetsitako Oinarri Orokorren hamaikagarren oinarrian ezarritakoaren arabera.

#### **11. Izangaia izendatzea eta plazaz jabetzea**

Izangaia Basauriko Udaleko karrerako funtzionario izendatuko dira Alkatearen uztailaren 1eko 2377/2022 Dekretu bidez onetsitako Oinarri Orokorren hamabigarren oinarrian xedatutakoarekin bat.

#### **12. Lan-poltsak**

Hautapen-prozesuaren emaitzekin lan-poltsa bat eratuko da, oposizio-faseko ariketak gainditu dituzten izangaiekin. Hasieran, 3 urteko iraupena izango du lan-poltsa horrek, eta aldi baterako langile-beharrizanak betetzeko baliatuko da. Lan-poltsa, bestalde, Basauriko Udaleko lan-poltsari buruzko araudian ezarritakoaren arabera kudeatuko da, jarraian datorren paragrafoan adierazitakoaren kalterik gabe.

Aurreko paragrafoan ezarritakoaren arabera eratutako lan-poltsa agortzen bada, beste lan-poltsa batzuen aurrean lehentasuna izango dute nahitaezkoak eta baztertzailak diren probarik gehien gainditu dituzten izangaiekin zerrendek, gainditutako proba horietan guztira lortutako puntuen hurrenkeran.

Berdinketa gertatuz gero, oposizio-faseko bigarren ariketan kalifikaziorik altuena duen pertsonaren alde egingo da.

#### **13. Izaera pertsonaleko datuak babestea**

Eskabideetan emandako informazio guztia fitxategi batean gordeko da. Fitxategi hori bakar-bakarrik erabiliko da hautapen-prozesua kudeatzeko, bai eta bitarteko funtzionarioak aldi baterako kontratazeko eta izendatzeko osatzen den lan-poltsa kudeatzeko ere.

Deitutako plazak lortu nahi dituztenek beren berariaz eman behar dute adostasuna segurtasun-neurriak behar dituzten eta hautapen-prozesurako beharrezkoak diren datuak tratatuak izateko.

Hautaketa-prozesuan emandako datuak beste administrazio publiko batzuei laga dazkizkieke, hala eskatzen badute. Titular diren datu pertsonalen lagapen hori egitea nahi duten izangaiek berariaz eman beharko dute baimena.



Hautapen-prozesuan parte hartzen dutenen informazio-eskubidea bermatzeko, prozesuko zerrenda guztiak Internet bidez kontsultatu ahal izango dira, lehen adierazitako Basauriko Udalaren helbide elektronikoan.

Eskabidean jasotako helbidea, telefono-zenbakiak eta helbide elektronikoak baliozkotzat joko dira. Eskabidea egiten dutenen erantzukizuna da, ez beste inorena, datu zuzenak ematea eta Epaimahaiari horien gaineko aldaketen berri jakinaraztea.

Egin beharreko jakinarazpenetarako, eskabidean adierazten dena hartuko da jakinarazpenetarako helbidetzat, ez bada gerora beste bat jakinarazten zaiola deialdia egin duenari, berariaz eta modu frogagarri batean.

## 14. Gorabeherak

Epaimahaiak oinarri hauetan zehaztu gabe dagoen guztiari buruz sor daitezkeen zalantzak ebatzi, eta hautapen-prozesua behar bezala garatzeko beharrezko erabakiak har ditzake.

Interesdunek deialdiaren, oinarrien eta horietatik eta Epaimahai Kalifikatzailearen jardueratik erator daitezkeen administrazio-egintza guztien kontra egin dezakete, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legean zehaztutako kasuetan eta bertan ezarritako moduan.





## I. ERANSKINA

**GAI-ZERRENDA****1. Zati orokorra**

1. gaia: Espainiako Konstituzioa. Atariko titulua. Oinarrizko eskubide eta eginbeharrak (EK: Atariko Titulua eta I. Titulua).

2. gaia: Europako Batasuna. Europako erakundeak: Parlamentua, Batzordea; Europako Batasuneko Kontseilua eta Europako Batasuneko Justizia Auzitegia. Legegintza-jarduera, Zuzenbide-iturriak. Kontzeptua: Erregelamenduak, Zuzentarauak eta Erabakiak.

3. gaia: Euskal Herriko Autonomia Estatutua (I). Atariko titulua (1-9 artikulua). I. Titulua: Euskadiren eskumenak: eskusiboak, lege bidez garatu beharrekoak eta betearaztekoak (10-23 artikulua)

4. gaia: Euskal Herriko Autonomia Estatutua (II). Euskal Herriaren aginteak (II. Titulua). Ogasuna eta Ondarea: Ekonomia-ituna (III. Titulua).

5. gaia: Udalerria (Apirilaren 2ko 7/185 Legea, toki araubidearen oinarriak arautzen dituena. II. Titulua. 11. artikulua). Toki Erakundeetako Lurralde eta biztanleria (7/1985 Legea, apirilaren 2koa. Toki-araubidearen oinarriak arautzen dituena. II. Titulua. I. Kapituluak (12-17 artikulua). Toki-erakundeei buruzko xedapen orokorrak. I. kapituluak. Funtzionamendu-araubidea (46-54 artikulua).

6. gaia: Udal-antolaketa. Oinarrizko organoak eta organo osagarriak. Eskumenak. (7/1985 Legea, apirilaren 2koa, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituena. I. titulua. II. kapituluak (19-28 artikulua).

7. gaia: Enplegu Publikoa (I). Urriaren 30eko 5/2015 Legegintzako Errege Dekretua, Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren testu bategina onartzen duena; Administrazio publikoetako langileak (8-13 artikulua); Enplegatu publikoen eskubideak: Norbanakoaren eskubideak eta taldean baliatzen diren norbanakoen eskubideak. III. Titulua. III. Kapituluak (14-15 artikulua). Lanbide-karreraren aurrera egiteko eta barne-sustapena izateko eskubidea. Jarduna ebaluatzea. III. Titulua. II. Kapituluak (16-20 artikulua). Ordainsari-eskubideak. III. Titulua. III. Kapituluak (21-30 artikulua). Enplegatu publikoen eginbeharra. Jokabide-kodea. III. Titulua. VI. Kapituluak. (52-54 artikulua).

8. gaia: Enplegu Publikoa (II). Administrazio-egoerak (Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren testu bategina onartzen duen urriaren 30eko 5/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren VI. Titulua; Langileen administrazio-egoerak euskal administrazio publikoetan (Euskal Enplegu Publikoari buruzko abenduaren 1eko 11/2022 Legearen X. titulua). Hizkuntza-normalizazioa (Euskal Enplegu Publikoari buruzko abenduaren 1eko 11/2022 Legearen XII. titulua).

9. gaia: 39/2015 legea, urriaren 1ekoa, Administrazio Publikoaren Administrazio-prozedura erkidearena; Administrazio-egintzak. III. Titulua. I. kapituluak: Administrazio-egintzen betekizunak (34-36 artikulua). II. Kapituluak: Egintzen efikazia (37-46 artikulua). III. Kapituluak: Deuseztasuna eta deuseztagarritasuna (47-52 artikulua).

10. gaia: 39/2015 legea, urriaren 1ekoa, Administrazio Publikoaren Administrazio-prozedura erkidearena; Administrazio-prozedura erkideri buruzko xedapenak (IV. Titulua); Prozeduraren bermeak (I. kapituluak). Prozeduraren hasiera (II. Kapituluak). Prozeduraren antolamendua (III. Kapituluak). Prozeduraren instrukzioa (IV. Kapituluak). Prozedura amaitzea (V. Kapituluak). Administrazio-prozedura erkidearen izapidetze sinplifikatua (VI. Kapituluak). Ebazpenak betearaztea (VII. Kapituluak).

11. gaia: 40/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Sektore Publikoaren Araubide juridikoarena. Atariko Titulua. I. kapituluak. Xedapen orokorrak. II. kapituluak. Administrazio publikoetako organoak. 1. Atala. Administrazio-organok. 2. Atala. Eskumena. 3. Atala. Kide anitzeko organoak. 1. Azpiatala. Funtzionamendua (1-18 artikulua). 3. Atala. Abstenitzea eta errekusatzea (23-24 artikulua).



12. gaia: 40/2015 Legea, 2015eko urriaren 1ekoa, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoarena. Atariko Titulua. III. kapitulua. Zehatzeko ahalaren printzipioak. IV. kapitulua. Administrazio publikoen ondare-erantzukizuna.

13. gaia: Bizkaiko Lurralde Historikoko Toki Erakundeen Aurrekontuei buruzko abenduaren 2ko 10/2003 Foru-Araua. ATARIKO TITULUA (1-2 artikulua); Aurrekontuen definizioa, indarraldia eta abiaburuak. I. Titulua. I. Kapituluak (3-5 artikulua). Aurrekontu Orokorren edukia. I. Titulua. II. Kapituluak (6-9 artikulua). Aurrekontu orokorren egitura. I. Titulua. III. Kapituluak (10-13 artikulua). Aurrekontu Orokorren gertuketa eta onespena. I. Titulua. IV. Kapituluak (14-18 artikulua).

14. gaia: 9/2005 Foru Araua, abenduaren 16koa, Toki Ogasunei buruzkoa: Udal Zergak. II. titulua. III. kapituluak. 2. atala (20. artikulua), tasak (II. titulua. III. kapituluak. 3. atala. 21-28 artikulua), kontribuzio bereziak (II. titulua. III. kapituluak. 4. atala. 29-39 artikulua), dirulaguntzak (II. titulua. V. kapituluak. 43. artikulua), prezio publikoak (II. titulua. VI. kapituluak. 44-50 artikulua).

15. gaia: Toki-erakundeek erregelamenduak egiteko duten ahala (7/1985 Legea, apirilaren 2koa, Toki-araubidearen oinarriak arautzen dituena. V. Titulua. I. Kapituluak (49. artikulua). 2/2016 Legea, apirilaren 7koa, Euskadiko Toki Erakundeei buruzkoa (1. Xedapen gehigarria). Basauriko Udal Araudi Organikoa ([www.basauri.eus](http://www.basauri.eus)): II. Titulua: Udalaren beharrezko antolakuntza. III. Titulua: Udaleko beharrezko organoen funtzionamendua. IV. Titulua: Udaleko antolakuntza osagarria. VII. Titulua: Hizkuntza ez baztertzaileraren erabilera.

16. gaia: 10/1982 Legea, azaroaren 24koa, Euskararen erabilera normalizatzeko oinarrizkoa: Atariko titulua (1-4 artikulua). I. Titulua: "Herritarren eskubideak eta herri-aginteen betebeharrak hizkuntzaren alorrean". (5. artikulua). 19/2024 Dekretua, otsailaren 22koa, Euskal Sektore Publikoan euskararen erabilera normalizatzeko. I. kapituluak. Xedapen orokorrak (1-4 artikulua). II. kapituluak. Hizkuntza Plangintza (5-21 artikulua). III. kapituluak. Hizkuntza-eskakizunen sistema (21-41 artikulua).

17. gaia: 31/1995 Legea, azaroaren 8koa, Lan-arriskuen Prebentzioari buruzkoa.

18. gaia: 19/2013 Legea, abenduaren 9koa, gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeko bideari eta gobernu onari buruzkoa: informazio publikoa eskuratzeko eskubidea. Eskubidearen mugak. Datuak eskuratzeko eskubidea gauzatzea. (12-22 artikulua).

19. gaia: Udal Araudia eta Ordenantzak ([www.basauri.eus](http://www.basauri.eus)). Gardentasunari, Gobernu Irekiari eta Herritarren Parte-hartzeari buruzko Araudi Organikoa. 2015eko otsailaren 16ko BAO on argitaratua.

20. gaia: 1/2023 Legegintzako Dekretua, martxoaren 16koa, emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistarik gabe bizitzeko Legearen testu bategina onartzen duena. Printzipio orokorrak (3. artikulua). Euskal Autonomia Erkidegoko administrazioen eta aginteen jardueran genero-ikuspegia txertatzeko neurriak (II. titulua)

## 2. Gai espezifikoak

21. gaia: 9/2017 Legea, azaroaren 8koa, Sektore Publikoko Kontratuena: Kontratu-motak zedarritzea. Erregulazio harmonizatuko kontratuak. Administrazio-kontratuak eta kontratu pribatuak.

22. gaia: 9/2017 Legea, azaroaren 8koa, Sektore Publikoko Kontratuei buruzkoa: Merkaturako alde aurretiko kontsultak. Kontratazio-espeditzea prestatzea. Kontratu txikien kontratazio-espeditzea. Espeditzearen presako eta larrialdiko izapidetzea. Administrazio-klausulen agiriak.

23. gaia: 9/2017 Legea, azaroaren 8koa, Sektore Publikoko Kontratuei buruzkoa: Kontratazio-organoa. Enpresaburuaren gaitasuna eta kaudimena. Kontratistaren ondo-rengotza.

24. gaia: 9/2017 Legea, azaroaren 8koa, Sektore Publikoko Kontratuei buruzkoa: Obra-kontratuak. Prestatzeko jarduketak. Egitea. Aldatzea. Betetzea. Suntsiaraztea.



25. gaia: 9/2017 Legea, azaroaren 8koa, Sektore Publikoko Kontratuei buruzkoa: Obra-emakidako kontratua. Emakiden ondoreak, betetzea eta azkentzea. Emakidadunaren eskubideak eta betebeharrak eta administrazio emakida-emailearen prerrogatibak.

26. gaia: 9/2017 Legea, azaroaren 8koa, Sektore Publikoko Kontratuei buruzkoa: Zerbitzu-emakidako kontratua. Prestatzeko jarduketak. Ondoreak, betetzea eta azkentzea. Egitea. Aldatzea. Betetzea eta haren ondoreak. Suntsiaraztea. Azpikontratatzea.

27. gaia: 9/2017 Legea, azaroaren 8koa, Sektore Publikoko Kontratuei buruzkoa: Hornidura-kontratua. Zerbitzu-kontratua.

28. gaia: 10/2015 Legea, abenduaren 23koa, Jendaurreko Ikuskizunen eta Jolas Jarduerena.

29. gaia: 17/2019 Dekretua, otsailaren 5koa, Jendaurreko Ikuskizunen eta Jolas Jardueren Araudia onartzen duena.

30. gaia: 277/2010 Dekretua, azaroaren 2koa, zenbait jarduera, zentro edo establezimenduren autobabes-betebeharrak arautzen dituena, larrialdiei aurre egiteko. Xedapen orokorrak. Autobabes-betebeharrak. Autobabes-planak.

31. gaia: 2/2006 Legea, ekainaren 30ekoa, Lurzoruari eta Hirigintzari buruzkoa. Xedapen eta printzipio orokorrak. Lurzoruaren sailkapena, kalifikazioa eta araubidea.

32. gaia: 2/2006 Legea, ekainaren 30ekoa, Lurzoruari eta Hirigintzari buruzkoa. Egiturazko antolamendua eta antolamendu xehatua. Egiturazko antolamenduko eta antolamendu xehatuko planak. Egiturazko antolamenduko planak. Hiri-antolamenduko plan orokorra.

33. gaia: 2/2006 Legea, ekainaren 30ekoa, Lurzoruari eta Hirigintzari buruzkoa. Antolamendu xehatuaren plangintza. Plan partzialak eta bereziak. Hirigintza-antolamenduko gainerako tresnak.

34. gaia: 2/2006 Legea, ekainaren 30ekoa, Lurzoruari eta Hirigintzari buruzkoa. Urbanizazio-proiektuak. Urbanizazio-obrak. Urbanizazio-obrak jasotzea.

35. gaia: 7/2015 Legegintzako Errege Dekretua, urriaren 30ekoa, Lurzoruari eta Hiri Birgaitzeari buruzko Legearen testu bategina onartzen duena.

36. gaia: Basauriko Hiri Antolamenduko Plan Orokorra. Planaren indarraldia, edukia eta ondorioak. Udalerriko zerbitzu-azpiegiturak.

37. gaia: 10/2021 Legea, abenduaren 9koa, Euskadiko Ingurumen Administrazioarena. Xedapen orokorrak. Ingurumenean eragina duten jardueren antolamendua. Ingurumen-baimenak. Lizentziak eta aurretiazko jakinarazpenak.

38. gaia: 10/2021 Legea, abenduaren 9koa, Euskadiko Ingurumen Administrazioarena. Ingurumen-ebaluazioa. Ingurumenean eragina duten jardueren zerrenda (Eranskinak).

39. gaia: 278/2011 Dekretua, abenduaren 27koa, atmosfera kutsa dezaketen jardueretarako instalazioak arautzen dituena. Xedapen orokorrak. Emisioen prebentzioa eta kontrola. Baimen-araubidea. Funtsezko aldaketak eta funtsezkoak ez direnak. Atmosferaren zaintza.

40. gaia: 213/2012 Dekretua, Euskal Autonomia Erkidegoko hots-kutsadurari buruzkoa. Xedapen orokorrak. Zarata-mapak eta ekintza-planak. Zonakatze akustikoa eta zortasun akustikoa. Kalitate akustikoko helburuak eta gehienezko immisio-balioak (III. titulua eta I. eranskina).

41. gaia: 213/2012 Dekretua, Euskal Autonomia Erkidegoko hots-kutsadurari buruzkoa. II. eranskina: Indize akustikoak ebaluatzeko prozedurak. 1. atala. Indize akustikoen definizioa. 2. atala. Zarata-indizeak ebaluatzeko metodoak.

42. gaia: EKT Oinarrizko Dokumentua HR: Zarataren aurkako babesa. Egiaztatzeko prozedura. Eskakizunak ezaugarritzea eta kuantifikatzea. Terminologia eta notazioak.

43. gaia: 4/2015 Legea, ekainaren 25ekoa, lurzoru kutsatzea saihestu eta kutsatutakoa garbitzekoa. Xedapen orokorrak. Lurzoruaren kalitatea ezagutzeko eta kontro-



latzeko tresnak. Lurzoruen edukizaille eta jabe direnen betebeharrak. Deklarazioak eta prozedurak lurzorua kalitatearen arloan.

44. gaia: 112/2012 Dekretua, ekainaren 26koa, eraikuntza- eta eraipen-hondakinen ekoizpena eta kudeaketa arautzen duena.

45. gaia: Amianto. Erabiltzearen ondoriozko arriskuak. Eraikinetatik kentzeko prozedura martxoaren 31ko 396/2006 Errege Dekretuaren arabera, amiantoaren eraginpean egoteko arriskua duten lanei aplika dakizkiokeen segurtasun eta osasuneko gutxieneko xedapenak ezartzen dituena, "BOE" 86. Zk. 2006/04/11.

46. gaia: 49/2009 Dekretua, otsailaren 24koa, hondakinak hondakindegietan biltegi-ratuta eta betelanak eginda ezabatzea arautzen duena. Betelanak.

47. gaia: 4/2019 Legea, otsailaren 21ekoa, Euskal Autonomia Erkidegoko Jasangarritasun Energetikoari buruzkoa.

48. gaia: 1627/1997 Errege Dekretua, urriaren 24koa, eraikuntza obretan gutxieneko segurtasun- eta osasun-xedapenak ezartzen dituena. Xedapen orokorrak. Segurtasun- eta osasun-xedapen espezifikoak obren proiektuaren eta gauzatzearen faseetan. Langileen eskubideak. Beste xedapen batzuk.

49. gaia: 486/1997 Errege Dekretua, apirilaren 14koa, lantokietako segurtasun eta osasunerako gutxieneko xedapenak ezartzen dituena. Segurtasun-baldintza orokorrak. Ingurumen-baldintzak. Argiztapena. Higiene-zerbitzuak eta atsedenerako lokalak. Lehen sorospentarako materiala eta lokalak.

50. gaia: 20/1997 Legea, abenduaren 4koa, irisgarritasuna sustatzekoa. Helburua eta esparrua. Irisgarritasunari buruzko xedapen orokorrak. Erreserbak.

51. gaia: 68/2000 Dekretua, apirilaren 11koa, hiri-inguruneen, espazio publikoen, eraikinen eta informazio eta komunikazioko sistemen irisgarritasun-baldintzei buruzko arau teknikoak onartzen dituena. I. eranskina: parametro antropometrikoak. II. eranskina: hiri ingurunearen baldintza teknikoak.

52. gaia: 68/2000 Dekretua, apirilaren 11koa, hiri-inguruneen, espazio publikoen, eraikinen eta informazio eta komunikazioko sistemen irisgarritasun-baldintzei buruzko arau teknikoak onartzen dituena. III. eranskina: Eraikinen baldintza teknikoak. IV. eranskina: Komunikaziorako irisgarritasuna. V. eranskina: Eraberritze-, zabalkuntza- edo aldatu-obra urbanizazio eta eraikinetan.

53. gaia: 842/2002 Errege Dekretua, abuztuaren 2koa, Behe-tentsioko Erregelamendu Elektroteknikoa onartzen duena. Instalazioak dokumentatzea eta zerbitzuan jartzea. Egiaztapenak eta ikuskapenak. Banaketa-sistemak. Lotura-instalazioak. Lur-konexioa. Instalazio hartzaileak.

54. gaia: 842/2002 Errege Dekretua, abuztuaren 2koa, Behe-tentsioko Erregelamendu Elektroteknikoa onartzen duena. Instalazio elektrikoak. Zuzeneko eta zeharkako kontaktuen aurkako babesa. Lurrak. Konexio ekipotentzialak.

55. gaia: 842/2002 Errege Dekretua, abuztuaren 2koa, Behe-tentsioko Erregelamendu Elektroteknikoa onartzen duena. Instalazio elektrikoak jendearentzat zabalik dauden lokaletan. Segurtasun-zerbitzuak elikatzea. Larrialdietako argiak. Preskripzio orokorrak eta osagarriak.

56. gaia: 842/2002 Errege Dekretua, abuztuaren 2koa, Behe-tentsioko Erregelamendu Elektroteknikoa onartzen duena. Sute- edo leherketa-arriskua duten lokaletako instalazio elektrikoak. Helburu berezietarako instalazioak: azokak eta standak. Ibilgailu elektrikoak kargatzeko azpiegitura.

57. gaia: Garajeak. Ebazpena, 2018ko irailaren 3koa, Energiaren, Meategien eta Industria Administrazioaren zuzendariarena, ibilgailuen garajeetako instalazio elektrikoak zerbitzuan jartzeko, handitzeko eta aldizka ikuskatzeko espedienteak izapidetzeko jarraibideak ematen dituena.

58. gaia: 1027/2007 Errege Dekretua, uztailaren 20koa, Eraikinetako Instalazio Termikoen Erregelamendua onartzen duena. Ongizatea eta higiena eskatzea. Eraginkortasun energetikoaren eskakizuna.



59. gaia: 1027/2007 Errege Dekretua, uztailaren 20koa, Eraikinetako Instalazio Termikoen Erregelamendua onartzen duena. Eraikinetako Instalazio Termikoen Erregelamendua. Segurtasun-eskakizunak. Makina-gelak. Tximiniak.

60. gaia: EKT Oinarrizko Dokumentua HS: eraikinetako osasungarritasuna. HS3: barruko airearen kalitatea. Orokortasunak. Eskakizunaren karakterizazioa eta kuantifikazioa. Aireztapen-sistemen baldintza orokorrak. Elementuen baldintza bereziak. Dimentsionatzea.

61. gaia: EKT Oinarrizko dokumentua SI: segurtasuna suteetan. Barne-hedapena. Kanpoko hedapena. Egiturak suarekiko duen erresistentzia. Terminologia.

62. gaia: EKT Oinarrizko dokumentua SI: segurtasuna suteetan. Barruan daudenak ebakuatzea. Suteen aurka babesteko instalazioak. Suhiltzaileen esku-hartzea.

63. gaia: 2267/2004 Errege Dekretua, abenduaren 3koa, industria-establezimenduetako suteen aurkako segurtasun-araudia onartzen duena. Establezimenduak ezaugarritzea suteen aurkako segurtasunaren arabera.

64. gaia: 2267/2004 Errege Dekretua, abenduaren 3koa, industria-establezimenduetako suteen aurkako segurtasun-araudia onartzen duena. Eraikuntza-baldintzak, konfigurazioaren, kokapenaren eta berezko mailaren arabera. Suteen aurka babesteko instalazioak.

65. gaia: 513/2017 Errege Dekretua, maiatzaren 22koa, Suteen Aurkako Babes Instalazioen Erregelamendua onartzen duena. Suteen aurka babesteko ekipoen eta sistemen ezaugarriak eta instalazioak.

66. gaia: EKT Oinarrizko Dokumentua HE: eraikinetan energia aurrezteak. Energia-kontsumoa mugatzea. Energia-eskariaren kontrola. 14/2022 Errege Lege-Dekretua, abuztuaren 1ekoa, energia aurrezteko eta gas naturalaren energia-mendekotasuna murrizteko neurriei buruzkoa.

67. gaia: 1890/2008 Errege Dekretua, azaroaren 14koa, kanpoko argiztapen-instalazioetako eraginkortasun energetikoari buruzko erregelamendua eta haren jarraibide tekniko osagarriak onartzen dituena.

68. gaia: Obrak gauzatzea. Egikaritze-proiektua. Oinarrizko dokumentuak. Obra-zuzendaritza. Zuinketa. Kalitatea kontrolatzeko programa.

69. gaia: Argiteria publikoaren zerbitzua. Basauriko Udalaren argiteria publikoaren sarea kudeatzea, mantentzea eta kontserbatzea.

70. gaia: Argiteria publikoa. Argiztapen-sistemak: sailkapenak. Luminariak. Kalkulu elektrikoak. Gauzatze baldintza teknikoak.

71. gaia: Espazio publiko irekien argiztapena. Kalitate-irizpideak. Motak eta irtenbide teknikoak.

72. gaia: Argiteria publikoko instalazioen inbentarioaren metodologia. Prozedurak eta tresneria, datuak hartzea eta analisisa.

73. gaia: Udal bideen zerbitzua Basaurin. Bide publikoak. Motak, diseinua, irisgarritasuna.

74. gaia: Bideen kudeaketa, mantentzea eta kontserbazioa. Materialak: asfaltoak, morteroak. Hormigoiak, baldosak. Motak, ezaugarriak eta aplikazioak.

75. gaia: Bide-seinaleak. Motak. Materialak. Ezaugarriak eta aplikatu beharreko araudia.

76. gaia: Trafikoa arautzea. Hiriko trafikoa kontrolatzeko eta erregulatzeko sistemak. Semaforoak.

77. gaia: Mugikortasun-planak. Plangintza estrategikoa, lurzoruen erabilerak eta hiri-mugikortasunerako ondorioak. Garraio-ereduak.

78. gaia: 1/2001 Legegintzako Errege Dekretua, uztailaren 20koa, Uren Legearen testu bategina onartzen duena. Jabari publiko hidraulikoa. Arro hidrografikoa. Demarkazio hidrografikoa. Uren emakida. Jabari publiko hidraulikoa erabiltzeko ekonomia- eta finantza-araubidea: kanonak.



79. gaia: Ur-hornidurako sarea. Hornidura-sarearen egitura orokorra. Elementuak eta ezaugarriak.

80. gaia: Hornidura-sare baten errendimendua hobetzea. Estrategiak. Isuriak aztertzea. Galerak murriztea.

81. gaia: Ur-hornidura. Kontrol-elementuak. Emari-neurgailuak. Presio-neurgailuak. Erregulazio-balbulak. Ponpatze-ekipoak.

82. gaia: Uraren tratamenduak hiri-horniduretan. Gaur egun ezarrita dauden parametroak betetzeko eskatzen diren prozesu fisikoak eta kimikoak.

83. gaia: Udalaren saneamendu-sarea. Sare motak. Elementuak eta ezaugarriak.

84. gaia: Hondakin-urak. Hondakin-uren sailkapena eta hustuketa-sistema motak.

85. gaia: Haurren jolasguneak. Jolas-adinak, helburuak eta jolasen elementuak. Araudia.

86. gaia: Haurren jolasguneak. Haur-jolasen mantentze-lanak.

87. gaia: Genero-ikuspegia udal-azpiegitura eta -zerbitzuetan.

88. gaia: Laneko arriskuen prebentzioari buruzko araudia. Toki-administrazioaren eremuan laneko arriskuak prebenitzeko Legea. Prebentzio-zerbitzuak.

89. gaia: Proiektuen plangintza. Definizioa. Zereginak esleitzea.

90. gaia: Proiektuen kalitatearen kudeaketa. Prozesuak definitzea eta kontrolatzea. Kalitatea ziurtatzeko planak. Baldintza-agiriak eta arau teknikoak.